


auzo z auzo • AUZOZ AUZO • AUZOZ AUZO •

altza

Harri Berri auzoan, hilaren 24ean, Olentzero ibiliko da kaleetan zehar trikitalariekkin batera.

**Altzako Gazte Le-
kuak** antolaturik, II. Futbito Gazte Leku Txapelketa hasiko da hilaren 26an. Txapelketak abenduaren 31ra bitartean iraungo du. Partiduak arratsaldeko 16.00etatik 19.00etara jokatuko dira.

Gabonetako jaiak dira eta, «Haur jaiak» egingo da hilaren 26tik 31ra. Abenduaren 26 eta 27an, ludoteka izango da, jokuekin eta tailerrekin batera. Ostegunean «NI FU NI FA» taldeak malabare tailerra egingo du goizeko 11.00etatik 13.00etara Casares Kultur Etxean eta 16.00etatik aurrera «HAU-TU-BUS» antzezlanak izango da ikusgai. Haur jai honekin amaitzeko hilaren 30ean, ludoteka eta azken jaiak izango dute gaztetxoek.



Gazte Leku II. Futbito Txapelketa.

Altzaren historia bilduma

«Altzak, hautsa kenduz II», hainbeste espero genuen liburua aurkeztu da jadanik. Harrera izugarria izan du hiritarrengan. Historia Mintegiaren lanari esker burutu da eta aurreko liburua bezala, Altzari buruzko lanen bilketa da. Besteak beste Andoni Kortajarenaren «Herrera tar zaar baten bizikaskizunak» edo Joan Mari Irigoienen «Altzari buruzko pintzeladak» topa ahal izango ditugu.

herrera

Herrerako haur eta gazteek abenduaren 24ean San Luis enparantzan kokatuta dagoen eguberri-tako zuhaitza txukuntzeko aukera izango dute.

Blues erritmoak izango ditugu Herreran urtea

amaitzeko, auzoan entzaiatzeko duen Soul Street taldeak bere musika eskainiko baitigu herrertarroi datorren ostiralean, abenduaren 30ean, arratsaldeko 20etatik aurrera Herrerako «El Nido» tabernan.

Urtero bezala Olentzerok ez du ahaztu nahi izan Herrera auzoa. Aurtengoan ere, egunez, Herreri-Ametsa Ikastolako haurrak ibiliko dira kantari eta arratsean, herrertar helduek ekingo diote Gabon kantak kalez-kale abesteari.



Zumardi
pasealekua, 22
tfnoa.: 393775

NAUTILUS



TABERNA

Zumardi pasealekua, 28-Tfnoa.: 400491



- Elekrika Blend Sistema
- Makilaia Iraunkorra
- Azkazal Labratuak
- Beiten Tindaketa...

• Zedro plaza 2 Tfnoa.: 392051
• Nagusia 27 LASARTE Tfnoa.: 371891

Zure auzoan bertan duzu aukera

bidebieta
TINDATEGIA
Lehorreko garbiketa

Zumardi pasealekua, 32 tfnoa.: 39 41 86

Alberro

Gizonezko moda

Zumardi pasealekua, 20
Tfnoa.: 399078 DONOSTIA

BIKOTE
KAFETEGIA

Zedro plaza 2
tfnoa.: 39 99 52